

LITERATURA KONTZEPTUAK

1. **“Eleberria kontaketa baten abentura da”** → Jean Ricardauren aipu bat da. Nobela esperimentalak, *Nouveau Roman*. XIX.mendeko idazleen aurrean XX.mendekoek formari ematen diote garrantzia. Nola kontatzen den garrantzitsuagoa da zer kontatzen den baino. Euskal Herrian honen aitzindaria dugu Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*.
2. **Nouveau Roman** → formak garrantzi handiagoa du, objektibotasuna irabazi behar du eleberrigileak, narratzailea kanpotik zine kamera bat balitz bezala. Pertsonaien deskribapen psikologikoa baztertzen da. Irakurlearen sormena bultzatu behar da, ez da guztia eginda eman behar, amaiera irekiak.
3. **Narratorioa** → Testuaren barne hartzailea, 2. pertsona, lehenengo plurala eta beste erabiltzen direnean, testuak irudikatzen duen “barneko” hartzailea. G. Princek asmatutako terminoa da. Euskal literaturan *Garoa* edota *Zergatik Panpox* aipa ditzakegu.
4. **Metaliteratura** → Literaturaren gaineko / literaturari buruzko literatura, testuaren idazkera/irakurketa dira mintzagai. Adibide modura *Obabakoak* eleberriko *Cocteauk* zatia.
5. **Barne bakarrizketa** → Bakarrizketa bat da baina modu apetatsuan egina. “Stream of consciousness”- J-Joyce. Adibideak: *Ulises*, *Zergatik Panpox* (A. Urretabizkaia).
6. **Bakarrizketa** → pertsona bakar batek eginiko hizketa luzea da. Xedea, pertsonaiaren barne mundua agerian uztea da.
7. **Ohiturazko narratiba/kostunbrismoa** → helburu modura herri edo eremu bateko ohitura tipikoen islada duen literatura eta orokorrean arte korrontea da. Euskal literaturaren kasuan adibide argiak ditugu Txomin Agirrerren *Kresala* edo *Garoa*, baita XX.mende hasierako antzerki-lan ugari ere.
8. **Modernitatea** → Kontzeptu polisemikoa da. Berritasuna, formaren garrantzia (nola zer baino garrantzitsuagoa), urbanitatea, indibidualtasuna... hainbat ezaugarrik definitzen dute. XIX.mende erditik aurrerako pentsamendua. Lehenengo euskal nobela modernoa Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*. Ezra Pound-en aipua: “*Make it new*”. Euskal modernitatea ez zegoen Madrilera begira, Parisera baizik.
9. **Posmodernitatea** → Dena esanda dagoela onartzea, originaltasunik eza. Dena berridazten dugu, aurretik idatzitakoa. Honen adibide dugu gurean Bernardo Atxagaren *Obabakoak*. Korronte honek ez zuen asko iraun euskal literaturan.
10. **Kontrakultura** → Abanguardia, kultura alternatiboa. Euskal Literaturan Pott Bandako kideek hankaz gora jartzen dute ordura arteko literatura kodea. Idazle hauen kodea oso kultua da. Erreferentzia asko hartzen zituzten, horien artean T.S. Eliot poeta; honen lan bat itzuli zuten Arestik, Sarrionandiak eta Juaristik *Lur eremua*.

11. **Erromantizismoa/izpiritu erromantikoa** → dena da emozioa. Indibidualtasuna. Idazle genioa onaren eta gaizkiaren gainetik. Edozein bide da ona inspiratzeko, drogak esaterako. MOTIBOAK: iluntasuna, misterioa, gaztelu isolatuak, gaizkia, gotikoa... Modan zeuden pertsonaiak: munstroak: Drakula, sexuzale eta odolzalea, gizarte arautuaren kontra. Euskal literaturan olerkariak aipatu ditzakegu: Bilintx, Etxahun, Iparragirre...
12. **Mendigoizaleak** → euskal nazionalistek bultzatuta sortu ziren mendi taldeak. Ideia nazionalistak zabaltzeko rol garrantzitsua jorratu zuten. Mendian Jainkoagandik gertuago, beraz kristau hobeak. Eremu bakoitzean jantzi ezberdina erabiltzen zuten, kolore desberdinekoa.
13. **Lore jokoak** → Antoine d'Abbadie-k sustatu zituen. Mezenas handi bat izan zen. 1835an asmatu zituen Lore Jokoak, bertan sartzen zen poesia, konposizioak. 1. Gaia: Montevideoko Penak. 1879an Hegoaldera jaitsi zen leihaketa, Elizondora.
14. **Imagined communities** → Bennedict Andersen: Nazio orok bere sorrera du fikziozkoa/imaginaziozkoa, nazio oro narratiboki eraikia da. Ezerk ez du berezko esentziarik, gauza bera dio Sexuaz eta Generoaz. Literatura orok elikatu egiten du nazio ideia bat. Literaturek geografia mito bat sortu eta honek elikatu egiten du urtetan nazioa. *Aitor legende Cantabre* A. Chaho, leienda bat da, izugarritzko eragina XIX.mendean gaztelera idatziko zuten idazleen artean (*Amaia, Leyendas Vascongadas...*), hauek nazio erresistente menderaezinaren mitoa elikatzen dute. Gerora, ohiturazko eleberrigintzaren bidez artzain estereotipoa elikatu, aurrerago ETAkide, gaur egun sukaldari.
15. **Subalvernoa/Bestea** → gugandik desberdina dena eta gurea izateaz jabetzen laguntzen diguna. Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean* euskaldunon subalvernoasunari buruzko tesia da. Moroak izan dira historikoki Espainiako Besteak/Subalvernoak, baina gizartean denek dute subalverno propioa.
 - i. Literatura subalvernoa: gurean esaterako bertsolaritza, literatura kontsideratzen ez den literatura, *beste* literatura.
16. **“Hizkuntza boterea da”** → Hizkuntza baten jabe izatea, zure ingurunea neurtu eta kontrolatzeko tresna indartsua izatea da.
17. **Existenzialismoa** → Korrante filosofiko bat da, bizitzaren zentzuaz arduratzen zena. kontzeptu nagusia, existentzia esentziaren gainetik dagoela, alegia, norbanakoaren alderik garrantzitsuena banakoa izatea dela. Korrante hau ikus dezakegu Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberrian eta bere gainontzeko eleberrigintzan.
18. **Denbora psikologikoa** → gure bizipen eta sentimenduen araberako denbora, denbora kronologikoa edo “errealaren” aurrean. Adibide modura, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*.